

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BILARKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorra sortzeari**

Bilarko Udaltzaren behin betiko onetsi du dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorra sortzeari buruzko espedienteak, zeren eta espedienteak arauzko epean jendaurrean egon zen bitartean ez baitzen haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorrak honela dio, hitzez hitz:

#### **1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea**

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 17. artikuluan ezarritakoa betez, ordenantza honen bidez Bilarko Udalak dirulaguntzak ematearen oinarri arautzaileak ezartzen dira, lege horretan jasotako berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren, publizitatearen, gardentasunaren, konkurrentziaren, objektibotasunaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioekin bat etorritik.

#### **2. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen arloak**

Udalak arlo hauetan eman ahal izango ditu dirulaguntzak ordenantza honetan xedatzen diren prozeduren bitartez:

- Kultura: antzerkia, irudia, arte plastikoak, kultura tradizionala, topaketak eta beste jarduerak batzuk.
- Euskara: sustatzea, ikastea, literatura eta erabiltzea.
- Musika: estilo desberdinen ikuskizunak eta, ahal dela, musika hezkuntza praktikoko programak.
- Kirolak: lehiaketa ofizialetan parte hartzearen ondoriozko gastuak -babes berezia dauka haurren eta nerabeen kirolak-; diruz lagundu ahal izango dira kirol ekitaldi bereziak.
- Hezkuntza: prestakuntzarekin zerikusia duten ikastaroak, mintegiek eta beste jarduerak batzuek jaso dezakete dirulaguntza.
- Gazteria: asoziazionismoa sustatzea eta ezartzea.
- Hirugarren adina: sektorean asoziazionismoa sustatzeko eta ezartzeko jarduerak.
- Turismo soziala: kultura xede markatua duten ibilaldiak.
- Osasuna eta kontsumoa: prestakuntza jarduerak sektore honetan.
- Ingurumena: sentsibilizatzeko ikastaroak eta jarduerak.
- Herritarren partaidetza: herritarren erakundeak eta auzotarren elkarteak diruz laguntzea.
- Herrietako jaiak: gastronomia lehiaketak, herriko jaietako kartelak, Olentzero, erregeen kabalgata, eta abar.

#### **3. artikulua. Onuradunak**

1. Dirulaguntzaren onuradun izango da dirulaguntzak oinarri duen jarduerak egingo duen edo ematea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona. Interes orokorreko jarduerak egiten

dituzten edo helburu publikoaren lorpena sustatzen duten pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek edo pribatuek jaso ahal izango dute dirulaguntza.

2. Dirulaguntza lortu nahi duten elkarteen esparrua Bilarko udalerrria bada, elkarte horiek Elkarteen Udal Erregistroan eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatuta egon beharko dira.

Oinarrietan hala jasotzen bada, hauek ere izan daitezke onuradun:

- Onuraduna pertsona juridikoa denean, dirulaguntzaren ematea oinarritzen duten jarduera guztiak edo batzuk egiteko konpromisoa hartzen duten onuradunaren bazkideak, lehenengoaren izenean eta kontura, onuraduntzat joko dira.

- Nortasuna eduki ez arren, dirulaguntzaren ematea funtsatzen duen egoeran dauden eta proiektuak, jarduerak edo jokabideak burutu ditzaketen talde fisikoen edo juridikoen, publikoen edo pribatuen elkarteak, ondasunen erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo banatutako ondare.

Nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuen taldeak badira, espresuki jarri beharko da eskaeran kide bakoitzak zer konpromiso hartzen dituen eta bakoitzari laguntzaren zer zenbateko aplikatuko zaion, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira.

3. Onuradun izan daitezke laguntza ematea dakarren egoeran dauden pertsona edo entitateak, edo oinarrietan eta deialdian jasotzen diren inguruabarretan daudenak.

4. Pertsonak edo erakundeek ezingo dute dirulaguntzarik jaso honako egoera hauetan:

- Epai irmo bidez kondenaturik, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko debekua dutenak.

- Konkurtso adierazpena eskatu dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabe jo dituztenak, konkurtsoan daudenak, esku hartze judizialaren menpe daudenak edota Konkurtso Legearen arabera desgaituak izan direnak, konkurtsoko kalifikazio epaian ezarritako desgaitzealdia amaitu ez bada.

- Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin dutenak, horren kausaren errudun deklaratuak izan badira.

- Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak egotea maiatzaren 11ko 12/1995 Legeak, nazioaren gobernu kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi karguen bateraezintasunenak, eta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, administrazio publikoaren zerbitzura lanean ari diren langileen bateraezintasunei buruzkoak, araututako edozein kasutan, edo ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, hauteskunde erregimen orokorrarenak, araututako hauteskunde karguetako edozein izatea, bertan edo autonomia erkidegoan arlo horiek arautzen dituzten arauetan ezarritako moduan.

- Indarrean dauden xedapenetan ezarritako zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan eguneratuta ez egotea, arauz ezarri bezala.

- Arau bidez zerga paradisutzat jotako herrialde edo lurralde batean daukatenak zerga egoitza.

- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharretan egunean ez egotea, arauetan ezarritako moduan.

- Ebazpen irmoz ezarritako zehapen gisa, dirulaguntzak lortzeko aukera galdu izana, Lege honi edo Zergei buruzko Lege Orokorri jarraituz.

Edozelan ere, ezingo dira izan dirulaguntzen onuradun, ezta erakunde laguntzaile ere, 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan ezarritako debeku egoeretan dauden elkarteak (1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, elkartzeko eskubidea arautzen duena).

Eta 1/2002 Lege Organikoak 30.4. artikuluan xedatutakoaren arabera, legez kontra ari den susmoa izan eta izena emateko hasitako prozedura administratiboa etenda duten elkarteek ere ezingo dute onuradun izan, ezta erakunde laguntzaileek ere, dagokion erregistroan inskribatzea posiblea dela dioen ebazpen judizial irmoa eman arte.

#### **4. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedurak**

Dirulaguntzak zuzenean edo norgehiagoka prozedura bidez eman daitezke.

Norgehiagokako araubidetzat hartuko da, dirulaguntzak aurkezteko eskaerak alderatu ondoren, dirulaguntzok emango dituen prozedura; horrek oinarri erregulatzailerean eta deialdian aurretik araututako balorazio irizpideekin bat datorren harremana ezarriko du haien artean, eta aipatu irizpideen arabera balorazio altuena duenak jasoko du dirulaguntza; hura eskura dagoen kredituaren barruan.

#### **5. artikulua. Dirulaguntzak modu zuzenean ematea**

Dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

a) Erakundearen aurrekontu orokorretan izendun gisa jasotakoak, hitzarmenetan eta ordenantza honetan adierazitakoen arabera.

Udal aurrekontuak onuradunaren izena, diruz lagunduko den objektua eta zenbatekoa hartuko ditu barne.

Aurrekontua gauzatzeko oinarrietan hitzarmen bidez formalizatuko diren mota horretako dirulaguntzak zehaztuko dira. Hitzarmenetan dirulaguntza ordaintzeko eta justifikatzeko moduak zehaztu behar dira.

Hitzarmenik behar ez duten dirulaguntzak aurrekontua indarrean jartzen denetik hamabost egun baliadun pasatu baino lehen ordainduko dira. Gauzatze oinarriek xedatzen duten moduan eta epean egingo da dirulaguntzaren justifikazioa eta, hala ez bada, ordenantza honetako 10. artikuluan ezarritako moduan.

b) Administrazioari dirulaguntza ematea edo kopurua zehaztea lege izaerako arau batek ezartzen dionean. Kasu horretan, berezko araudiarekin bat etorritik aplikatu beharreko prozedura jarraituko da dirulaguntza emate aldera.

c) Salbuespen modura, beste dirulaguntza batzuk, deialdi publikoa egiteko eragozpenak badaude, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik.

Udal aurrekontuan jasoko da dirulaguntza hauek emateko dagoen urteko esleipena.

Aipatutako arrazoiak badirela alde aurretik egiaztatuta, alkateari dagokio dirulaguntza horiek ematea. Ebazpenean jasoko dira dirulaguntza hauei aplikatzen zaizkien baldintza mota guztiak.

#### **6. artikulua. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez ematea**

A) Ofizioz hastea:

Prozedura ofizioz hasiko da, deialdi baten bidez, zeinak gutxienez eduki hauek izan beharko baititu:

- Dagokion ordenantzaren argitalpenaren aipua.
- Zer aurrekontu kredituri egozten zaion dirulaguntza eta zenbatekoa den deialdiko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, eskura dauden kredituen barruan, edo, bestela, zer zenbateko aurreikusten den dirulaguntzetarako.
- Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua.
- Emakida norgehiagoka prozedura bidez egiten delako adierazpena.

- Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta betetzen direla egiaztatzeko modua.
- Prozeduraren instrukzioa egiteko eta ebazpena emateko eskumena zein organok duten adieraztea.
- Eskaerak aurkezteko epea; Dirulaguntzen Lege Orokorren 23.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.
- Ebazteko eta jakinarazteko epea.
- Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.
- Hala badagokio, eskaerak birformulatzeko aukerak.
- Ebazpenak administrazio bidearekin amaitzen ote duen adieraztea eta, horrela ez bada, zein organotan jarri behar den berraztertze errekurtsua.
- Eskaerak balioesteko irizpideak.
- Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen duenaren arabera.

#### B) Eskaerak aurkeztea:

Eskaera udaleko alkate-lehendakariari zuzenduko zaio eta 39/2015 Legeak 16. artikuluan aipatutako bideetako edozeinetan aurkeztuko da. Eskaerarekin batera, deialdian zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Udalak lehendik badauzka eskatzen diren agiriak, eskatzaileak ez du edukiko berriz aurkeztu beharrik. Eskatzaileak agiriak zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo eman ziren zehaztu beharko du.

Ordenantzan ezarritako betekizun guztiak betetzen ez badira, organo eskudunak interesdunari eskatuko dio falta dena aurkezteko, gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean, eta adieraziko dio hala ez egitera ulertuko dela eskaeran atzera egiten duela, aurrez ebazpena emanda, 39/2015 Legeak 21. artikuluan ezarritakoaren moduan.

#### C) Prozeduraren instrukzioa:

Organo instruktorea arloko zinegotzi ordezkaria izango da.

Hauek izango dira instrukzio jarduerak:

- Ebazteko beharrezkotzat jotzen diren edo dirulaguntzak arautzen dituzten arauen arabera derrigorrezkoak diren txostenak eskatzea.
- Eskaerak ebaluatzea, dirulaguntza arautzen duen arauan ezarritako balorazio irizpideen, moduen eta lehentasunen arabera.

Arau horretan aurreikus liteke, halaber, aurre-ebaluzioko fase bat, egiaztatzeko ea betetzen diren onuradun izateko ezarrita dauden baldintzak.

Behin eskaerak ebaluatu ondoren, espedientea kide anitzeko organoari bidaliko zaio. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.1. artikulua betez, organo hori alderdi politiko bakoitzeko ordezkari batek osatuko du eta eskaerei buruzko txostena emango du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren, organo instruktoreak ebazpenerako behin-behineko proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta. Horren berri interesdunei eman beharko zaie, deialdian ezartzen den moduan, eta hamar eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

Behin betiko ebazpen proposamenak hauek jaso behar ditu:

- Dirulaguntza ematea proposatutako eskatzaileen zerrenda.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa.
- Dirulaguntzak emateko zein arrazoi izan diren eta zein irizpideri jarraitu zaion.

D) Ebazpena:

Behin betiko ebazpen proposamena onartu ondoren, organo instruktoreak prozedura ebatziko du. Ebazpena arrazoitua izango da, eta beti frogatu beharko dira ematen den ebazpenaren oinarriak.

Dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda agertu behar da eta gainerakoek zergatik ez duten jasoko azaldu. Ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da. Epea deialdia argitaratzen den unean hasiko da, nola eta deialdiak berak ez dituen ondorioak atzeratzen geroagoko beste data batera.

Gehieneko epea igaro bada eta interesdunei ebazpenaren berri eman ez bazaie, esan nahiko du eskaera administrazio isiltasunagatik gaitzetsi egin dela.

#### **7. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

- Dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatzea edo haren jarrera izatea.
- Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela edo helburua bete dela ere.
- Diruz lagundutako jarduera burutzeko beharrezkoak diren baimen guztiak lortzea eta horien zehaztapenak betetzea.
- Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen ikuskatze lanak onartzea, baita kontrol organo eskudunek –hala nola, udal esku hartzeak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak- eta gainontzeko organoek –estatukoek zein erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolak ere, aurreko zeregin horietan eskatuko zaien informazio oro emanez.
- Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.
- Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, erakunde emaileari aldaketaren berri ematea.
- Ebazpen proposamena jakinarazi aurretik zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela frogatzea. Betekizun hori ez da bete beharko bekak edo ikasketarako laguntzak jaso badira.
- Kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, merkataritzako legerian eta onuradunari dagokion arlokoan ezarritakoaren arabera.
- Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatuak eta kontrolatuak izan baitaitezke.
- Diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo ekintzetarako finantzaketa publikoa jaso izanaren berri ematea.
- Dirulaguntza itzuli behar izateko inguruabarretako bat gertatuz gero, jasotako kopurua itzultzea.

**8. artikulua. Zenbatekoa**

Oro har, eta ordenantza espezifikoak kontrakoa xedatzen ez badu, udalak norgehiagoka prozedura bidez ematen dituen dirulaguntzek ezingo dute gainditu diruz lagundutako jardueraren kostuaren ehuneko 50.

Udalak dirulaguntzak ematea bateragarria izango da beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da inolaz ere izan jardueraren kostua baino handiagoa, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera.

**9. artikulua. Justifikatzea eta jasotzea**

Dirulaguntza jasotzeko, ordenantza espezifikoan ezarritakoez gainera, agiri hauek aurkeztu behar zaizkio udalari:

- Onuradunak sinatutako eskaera, alkateari bidaliko zaiona. Bertan, dirulaguntzaren ordainketa eskatuko du eta transferentzia zein kontu korrontetan egin behar den adieraziko du.
- Egindako jardueraren memoria.
- Gastua frogatzen duten fakturak (jatorrizkoak zein fotokopia konpulsatuak).
- Onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak eguneratuta dituela egiaztatzen duten agiriak.

Justifikazio agiriak diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, deialdian beste epe bat zehazten ez bada.

**10. artikulua. Dirulaguntza itzultzea**

Honako kasu hauetan itzuli beharko da jasotako dirulaguntza eta gainera berandutze korrituak ordaindu beharko dira, hain zuzen ere dirulaguntza ordaindu denetik dirua itzuli beharra ezarri arte sortutakoak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorreko 38.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz:

- Eskatutako baldintzak faltsutuz edo ematea eragotzi ahal dutenak ezkutatzuz lortu bada dirulaguntza.
- Dirulaguntza emateko ezinbestekoa den helburua, jarduera edo proiektua erabat edo zati batean bete ez bada edo arauzko jarrera eduki ez bada.
- Justifikatzeko betebeharra bete ez bada edo behar beste ez justifikatu ez bada, 38/2003 Legearen 30. artikuluan eta, hala badagokio, dirulaguntza arautzen duten arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.
- 38/2003 Legearen 18. artikuluko 4. apartatuan jasotako zabalkunde neurriak hartzeko betebeharra bete ez bada.
- 38/2003 Legearen 14. eta 15. artikuluetan jasota dauden egiaztatze eta finantza kontrolerako jardunei oztupoak eta aitzakiak jartzen bazaizkio, saihestu edo galarazi nahi badira edo agirien kontabilitate, erregistro edo iraunarazte beharrak betetzen ez badira. Hau da, egiaztatzerik ez badago jasotako dirulaguntzari emandako erabilera, helburua lortu den ala ez, diruz lagundutako ekintzen errealitatea edo erregulartasuna, edo helburu bererako estatuko, Europako edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batek emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak jaso diren ala ez.
- Dirulaguntza dela-eta administrazioak erakunde onuradunei ezarri dizkien betebeharrak nahiz haiek hartutako konpromisoak betetzen ez badituzte, baldin eta betebeharrak horiek helburuak betetzeari, ekintzak gauzatzeari, proiektuak burutzeari edo dirulaguntza ematea eragiten duten jarrerari badagozkie.

- Administrazioak, dirulaguntza ematearen truke, onuradunei jarritako betebeharrak nahiz horietatik ezberdin izanda horiek hartutako konpromisoak urratzea, horrek ezintasuna badakar jasotako fondoei emaniko erabilera, kasuan kasuko helburua bete dela, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna edo xede berdinerako beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatuetatik edo nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorritako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideren bat jaso dela egiaztatzeko.

- Europar Batasunaren Ituneko 87. artikulutik 89. artikulura bitartean ezarritakoaren arabera, itzultzeko beharra dakarren erabakia hartzen bada.

- Dirulaguntzaren araudian aurreikusten diren bestelako hipotesiak.

### **11. artikulua. Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak**

Ordenantza espezifikoek jaso dezakete konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egitea, onuradunek halakoetan aurkeztu behar dituzten bermeak ezarrita.

### **12. artikulua. Arau hausteen erantzuleak**

Dirulaguntzen arloan administrazio arau haustetzat jotzen dira azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Dirulaguntzei buruzkoan, tipifikatutako ekintzak eta ez egiteak.

Dirulaguntzen arloan administrazio arau hausteen erantzule honako hauek izango dira: pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, baita nortasun juridikorik gabeko erakundeak ere (nortasunik eduki ez arren, dirulaguntzaren ematea funtsatzen duen egoeran dauden eta proiektuak, jarduerak edo jokabideak burutu ditzaketen talde fisikoen edo juridikoen, publikoen edo pribatuen elkarteak, ondasunen erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo banatutako ondare), ekintzagatik edo ez egiteagatik Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta, bereziki, honako hauetan arau hauste gisa tipifikatutako honako egoeratan daudenak:

- Dirulaguntzen onuradunak, baita dirulaguntza ematea oinarritzen duten jarduerak egiteko konpromisoa hartu duten pertsona juridikoen edo nortasun juridikorik gabeko erakundeen kideak ere.

- Jarduteko gaitasunik ez duten dirulaguntzen onuradun direnen legezko ordezkaria.

- Dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten pertsonak edo erakundeak, laguntza ematera eta eskatzen diren agiriak ematera behartuta daudenak.

### **13. artikulua. Erantzukizunetik salbuestea**

Tipifikatutako egite edo ez egiteek ez dute dirulaguntzen arloko arau hauste administrati-boaren erantzukizunetik ekarriko kasu hauetan:

- Jarduteko gaitasunik ez dutenek egiten dituztenean.

- Ezinbesteko karia gertatzen denean.

- Talde baten erabakiaren ondorio direnean, botoa salbatu dutenentzat edo erabakia hartu zeneko bilerara joan ez zirenentzat.

### **14. artikulua. Arau hauste arinak**

Arau hauste arina da ez betetzea dirulaguntzen oinarri arautzaileetan eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, azaroaren 17koa) jasotako betebeharrak, arau hauste larria edo oso larria ez bada, eta zigorra mailakatzeko elementu gisa ez badihardu. Bereziki, jokabide hauek dira arau hauste arinak:

a) Epez kanpo aurkeztea jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzeko kontuak.

b) Erabat zehatzak ez diren edo osatu gabe dauden justifikazio kontuak aurkeztea.

c) Artikulu honetako gainerako paragrafoetan berariaz adierazi ez arren, dirulaguntzaren emakidaren ondotik gain hartutako betebeharrak urratzea, arauak ezarritako baldintzetan.

d) Kontabilitate edo erregistroko betebeharrak urratzea, batez ere:

- Legez eskaturiko kontabilitatean edo erregistroetan eragiketa bat edo bat baino gehiago behar beste zehatza ez izatea edo bertan ez egotea.

- Kontabilitatea, legez ezarritako erregistroak, euskarri gisa balio duten programa informatikoak eta agiritegiak eta erabilitako kodifikazio sistemak izateko edo mantentzeko betebeharrak urratzea.

- Erakundearen benetako egoera zein den jakitea galarazten duten jarduerak eta ekitaldi ekonomiko beraren hainbat kontabilitate eramatea.

- Kontuak dagozkien helburuak ez direnetarako erabiltzea, betiere, diruz lagundutako jardueren errealitatea egiaztatzea zailtzen badute.

e) Ordainagiriak eta antzeko agiriak mantentzeko betebeharrak urratzea.

f) Finantza kontrola garatzeko jardueren kontrakoa izatea, horiek oztopatzea, aitzakia jartzea edo errefusatzeko. Egoera hori dela ulertuko da baldin eta, bidezko jakinarazpena jaso ondoren, dirulaguntzen arloko arau hauste administratiboaren erantzulearen jardunak atzeratu, oztopatu edo eragotzi egiten baditu udal funtzionarioen finantza kontroleko lanak.

Besteak beste, jokabide hauek dira kontrol lanei eragozpenak, aitzakiak edo oztopoak jartzea edo ezezkoa ematea:

- Ondoko hauek ez aurkeztea edo aztertzen ez uztea: agiriak, txostenak, aurrekariak, liburuak, erregistroak, fitxategiak, frogagiriak, kontabilitate idazpenak, fitxategi eta programa informatikoak, sistema eragileak eta kontroleko sistemak, eta egiaztatu beharreko beste edozein datu.

- Errekerimenduren bati erantzunik ez ematea.

- Zehaztutako leku eta epean ez bertaratzea, bidezko arrazoiren bat frogatzen ez bada.

- Erakunde laguntzaileak edo onuradunak jasotako dirua behar bezala ez erabiltzea edo diruz lagundutako jardueraren erregulartasuna eta errealitatea justifikatzeko zantzu frogagarriak dauden negozio lokaletan eta establezimendu edo lekuetan behar bezala egotea edo sartzea ukatu edo galaraztea.

- Finantza kontrola egiteko ardura duten kontrol langileak zerbaitera behartzea.

g) Laguntzeko betebeharrak duten pertsona edo erakundeek betebeharrak hori ez betetzea, horrek pertsona edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa egiaztatzea eragozten duenean.

h) Europar Batasunak dirulaguntzen alorrean garatutako araudian arau hauste arintzat jotako gainerako jokabideak.

#### **15. artikulua. Arau hauste larriak**

Arau hauste larriak dira jokabide hauek:

- Xede bererako beste dirulaguntza, laguntza publiko, sarrera edo baliabideren bat lortuz gero, dirulaguntzak ematen dituen organoari edo erakunde laguntzaileari jakinarazteko betebeharrak urratzea.

- Ezarritako baldintzak ez betetzea, dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak nabarmenki aldatuz.

- Jasotako diruari emaniko erabilera justifikatu ezin izatea, behin agiriak aurkezteko ezarritako epea igarota.

- Europar Batasunaren dirulaguntzen arloko araudian arau hauste larritzat jotako gainerako jokabideak.

#### **16. artikulua. Arau hauste oso larriak**

Arau hauste oso larriak dira jokabide hauek:

- Dirulaguntza bat lortzea faltsutuz hura emateko eskatutako baldintzak edo ezkatutuz hura ematea eragotzi edo mugatu ahal izan dituztenak.

- Jasotako zenbatekoak ez erabiltzea, osorik edo partez, dirulaguntza eman den xedeetarako.

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, jasotzen dituen kontrol jardueri oztopoak edo aitzakiak jartzea edo haiek saihestu eta galaraztea.

- Europar Batasunak dirulaguntzen alorrean garatutako araudian arau hauste oso larritzat jotako gainerako jokabideak.

#### **17. artikulua. Zehapenak**

Arau hauste arinen zehapenak:

a) Arau hauste arinagatik 75 eta 900 euro bitarteko isuna ezarriko da, hurrengo apartatuan xedatutako kasuetan izan ezik.

b) Ondorengo arau hauste bakoitzean 150 eta 6.000 euro bitarteko isuna ezarriko da, hala nola:

- Legez eskaturiko kontabilitatean edo erregistroetan eragiketa bat edo bat baino gehiago behar beste zehatza ez izatea edo bertan ez egotea.

- Kontabilitateaz edo legez ezarritako erregistroez arduratzeko betebeharra ez betetzea.

- Erakundearen benetako egoera zein den jakitea galarazten duten jarduera beraren hainbat kontabilitate eramatea.

- Kontuak dagozkien helburuak ez direnetarako erabiltzea, betiere, diruz lagundutako jardueren errealitatea egiaztatzea zailtzen badute.

- Kontrol organoek eskatutako frogak eta agiriak ez aurkeztea edo ukatzea.

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 46. artikuluan ezartzen dituen agiriak aurkezteko betebeharra eta laguntzeko betebeharra duten pertsonak eta erakundeak betebehara hori ez betetzea, horrek onuradunak edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa egiaztatzea eragozten duenean.

Arau hauste larrien zehapenak:

Arau hauste larriek diruzko isuna izango dute. Zehapenaren zenbatekoa behar ez den moduan lortutako, aplikatutako edo ez justifikatutako diru kopuruaren kopuru bikoitza izango da. Gauza bera aplikatuko da erakunde laguntzaileen kasuan, behar ez bezala aplikatu diren edo justifikatu ez diren fondoekin.

Arau haustearen ondorioz, kalte ekonomikoa lortutako dirulaguntzaren edo entitate laguntzaileek jasotakoaren ehuneko 50 baino gehiago bada eta 30.000 eurotik gorakoa bada eta, beraz, Lege horretako 60. artikulua 1. apartatuko b) eta c) paragrafoetako egoera bat ematen denean, arau hausleek gainera honako isunen bat ere izan dezakete:

- Administrazioaren aldetik edo beste erakunde publiko batzuen eskutik dirulaguntzak, laguntza publikoak eta abalak jasotzeko aukera galtzea, gehienez hiru urtez.

- Administrazioarekin edo gainerako erakunde publikoekin kontratuak egiteko debekua, gehienez ere hiru urtez.

- Lege honetan araututako dirulaguntzei dagokienez, erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera galtzea, gehienez ere hiru urtez.

Arau hauste oso larrien zehapenak:

Arau hauste oso larriek diruzko isuna izango dute. Zehapenaren zenbatekoa behar ez den moduan lortutako, aplikatutako edo ez justifikatutako diru kopuruaren kopuru bikoitzetik hirukoitzera izango da. Gauza bera aplikatuko da erakunde laguntzaileen kasuan, behar ez bezala aplikatu diren edo justifikatu ez diren fondoekin.

Hala ere, ez da zehapenik ezarriko jasotako kopuruak dirulaguntza eman zen xedeetarako erabiltzen ez badira eta, hala ezartzen denean, jasotako fondo onuradunei ematen ez bazai-zkie, dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan xedatutako irizpideekin bat etorri; hain zuzen, arau hausleek zenbatekoak eta kasuan kasuko berandutze korrituak aurrez errekerimendurik gabe itzuli dituztenean.

Arau hauste oso larri baten ondorioz sortutako kalte ekonomikoa 30.000 eurotik gorakoa bada, eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren 60. artikuluko 1. apartatuko b) eta c) paragrafoetan aurreikusitako egoera bat bada (38/2003 Legea, azaroaren 17koa), arau haustea egin dutenei zehapen hauetako bat ere ezarri ahal izango zaie:

- Administrazioaren aldetik edo beste erakunde publiko batzuen eskutik dirulaguntzak, laguntza publikoak eta abalak jasotzeko aukera galtzea, gehienez bost urtez.

- Administrazioarekin edo gainerako erakunde publikoekin kontratuak egiteko debekua izatea, gehienez ere bost urtez.

- Bost urtera arteko epean erakunde laguntzaile moduan ezin jardutea, lege horretan arautzen diren dirulaguntzei dagokienez.

#### **18. artikulua. Indarrean jartzea**

Ordenantza hau ALHAOn argitaratuko da oso-osorik eta, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro ondoren, indarrean jarriko da.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da. Ediktu honen kopia Bilarko udaletxeko iragarki taulan egongo da ikusgai, eragin berberetarako.

Bilar, 2019ko abenduaren 23a

*Alkatea*

*ENRIQUE PÉREZ MAZO*